

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO DE LA ASIGNATURA: **HISTORIA ACTUAL**

Irakaslea/Profesor/a: Fernando Martínez Rueda

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Egungo Historia Esperientzia Geletako Giza Zientzietako Unibertsitate Tituluko hautazko irakasgaia da. XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadatik Espainiako eta Euskal Herriko historia hurbilean gertatu diren aldaketa nagusien ikuspegi orokorra ematen du irakasgaiak. Ikasturtean zehar, egungo errealitatea osatu duten prozesu historiko esanguratsuenak aztertuko dira, modu dibulgatzaile eta zorrotzean. Lehenik eta behin, Espainia osoko aldaketak aztertuko dira, ondoren Euskal Herriko berezitasun historikoei behatzeko. Azken finean, iragan hurbila ezagutzea da kontua, gure oraina ulertu ahal izateko.

Gaitasunak/Competencias

Espainiako historia hurbileko aldaketa prozesu nagusiak ezagutzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezitasun historikoak identifikatzea, Espainia osoaren bilakaerari dagokionez.

Gure historia hurbileko prozesuei buruzko gogoeta kritikoa egitea.

Edukiak/Contenidos

1. gaia.- BIGARREN ERREPUBLIKA (1931-1936)

Espainia XX. mendearen hasieran. - Bigarren Errepublikako proiektu erreformista (1931-1933). - Aldaketarako erresistentziak eta polarizazio politikoa (1933-35). - Fronte Popularra eta Errepublikaren aurkako

konspirazioa. - Bigarren Errepublika Euskal Herrian: autonomiaren aldeko borroka.

2. gaia.- GERRA ZIBILA (1936-1939)

Gerra Zibilaren esanahia Espainiako Historia Garaikidean. – Estatu kolpetik gerra zibilera. - Kanpoko esku-hartzea. - Espainia errepublikazalea eta matxinatutako Espainia Gerra Zibilean. - Gerra Zibilaren ondorioak. - Gerra Zibila Euskal Herrian: bestelako gatazka bat?

3. gaia.- FRANKISMOA (1939-1975)

Jarraipena eta aldaketa frankismoan. - Lehen frankismoa (1939-1959): estatu faxistatik nazionalkatolizismora; autarkia eta errepresioa Espainian eta Euskal Herrian. - Desarrollismo frankista: aldaketa soziala eta oposizio indar berriak. - Frankismo berantiarra eta erregimenaren krisia.

4. gaia.- TRANTSIZIOA (1975-1982)

Trantsizioaren ezaugarriak Espainian eta prozesuaren berezitasunak Euskal Herrian. - Trantsizioaren etapak eta bilakaera. - Euskal autonomia eraikitzea eta Euskadin indarkeriak irautea.

Metodologia/Metodología

Irakasleak gai bakoitzaren ideia nagusiak aurkeztuko ditu. Aurkezpen hori osatzeko, testuak aztertuko dira eta izaera historikoa duten ikus-entzunezko lanak ikusiko dira. Ikasleek ikasgelan komentatu eta eztabaidatuko dituzte ikusi eta aztertutako material horiek.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Eskoletara bertaratzea eta haietan parte-hartzea da ebaluazio-irizpide nagusia. Esperientzia Gela araudiak ezartzen duenaren arabera, eskolen % 80ra joatea baldintza da ikasgaia gainditzeko. Irakasgaiaren interes berezia duten ikasleek borondatezko lan bat egin dezakete, eta lan hori kontuan hartuko da irakasgaiaren amaierako ebaluazioan. Lan hori honako hauei buruzko hausnarketa kritikoa egitean datza: irakasgaia, ikasturtean zehar ikasitakoa, eskoletan landutako materialak, ikasgaiarekin lotuta egindako borondatezko lanak, ikasgelan sortutako eztabaidak, ikaskuntza prozesuan antzemandako zailtasunak, hobetu beharreko irakasgaiaren alderdiak eta abar.

Bibliografia/Bibliografía

Irakasgaiaren gai bakoitzean, eskoletako azalpenen irakurketa osagarria eskainiko du irakasleak. Hori alde batera utzita, Espainiako eta Euskal Herriko historia garaikideari buruzko bibliografia oparoaren artean, eskoletan aurkeztuko diren gaiak garatzen dituzten hainbat liburu aipatzen dira hemen. Gai bakoitzaren irakurketa osagarriak eta bibliografia orokorra kontsultatzea borondatezkoa da. Ikasgaiaren interes berezia duten ikasleei baliabide bibliografikoak eskaintzea da asmoa.

CANAL, J. (zuz.): Historia de España, Lib. II (1931-2017), Madril, Taurus, 2018.

CASANOVA, J. eta GIL ANDRÉS, C.: Historia de España en el siglo XX, Ariel, Bartzelona, 2010.

BARRUSO, P., et al., Historia del País Vasco. Edad Contemporánea, Hiria, Donostia, 2000.

GRANJA, José Luis de la; PABLO, Santiago de y RUBIO, Coro, Breve Historia de Euskadi. De los Fueros a la autonomía, Debate, Bartzelona, 2020.